



Orozkoko Gaztaina Eguneko erromeria, atzean gaztainak gordetzeko kirikiñausia ageri dela.

Gaztainari lotutako ondare kulturala berreskuratzen



Garazi Zabaleta

@tirikittrann

ARGAZKIAK: OROZKOKO UDALA

Kantauri isurialde osoan dago -edo behintzat egon izan da- gaztainarekin lotutako tradizio eta ohitura handia, eta lotura hori aztertzeke ikerketa ugari egin izan dira Galizia eta Asturiasetik gureraino. Orozko (Bizkaia) inguruan katalogatuta dauden kirikiñausi kopururik handienetakoa dagoela kontatu digu Jose Angel Aramendi Supelaur kultur elkarteke kideak. Ondare hori guztia baliotan jartzeko helburuarekin antolatzen dute urtero Orozkoko Gaztaina Eguna. Urriaren 29an ospatu dute hamabigarren edizioa, urteroko moduan kirikiñausi handienetakoaren ondoan.

Kiriki-zer?

Garai batean gaztainak gordetzeko erabiltzen ziren harri multzoak osatutako eraikinak dira kirikiñausiak. Izen hori hartzen dute Orozkon behintzat. Eraikin zirkularrak dira gehienak, eta handienak 7,5 metroko diametroa eta ia bi metroko altuera ditu. "Imajinatu zenbat gaztaina biltzeko edukiera zeukan, eta beraz, gaztainak zenbaterainoko garrantzia zuen hemen", dio Aramendik.

40 kirikiñausi inguru dituzte katalogatuta Orozkon, baina gehiago ere

badirela adierazi digu Supelaureko kideak. Azken urteetan mendiko ibilbide zirkular bat antolatzen aritu dira elkarteke kideak, kirikiñausietatik eta bestelako kultur ondare elementuetatik pasatzen dena: antzinako teilerilabe bat, errota zahar bat, txondorlekuak eta abar. "Iaz amaitu genuen ibilbidearen trazatua eta Udalak onespena eman zuen bidea egokitzeko. Orain informazio panelekin osatuko dugu", azaldu digu Aramendik.

Gaztainaren garrantzia

"Urriko azken igandean egiten dugu Gaztainaren Eguna. Aurten ere han goian egon gara 600 pertsona inguru", dio elkarteke kideak. Herritarrek urtero erantzun oso ona ematen dutela kontatu digu, interesa badagoela. Erromeria kirikiñausi handiaren ondoan egiten dute, eta nola ez, gaztain erreak izaten dira protagonistetako batzuk. "Ondare guzti hori erakustea eta aintzat hartzea oso garrantzitsua da gure ustez, joandako bizimodu baten iragarpena egiten digulako". Askotan gauzak azkar xamar ahazten baditugu ere, egia baita gaztainondoak duela gutxi arte oinarritzkoak izan zirela inguru hauetako pertsonen bizitzan: elikatzeko edota egurrerako batez ere, baina baita istorio eta mitoak sortzeko ere. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDORREN HITZALDIK

Azaroak 16: Lezo

Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 23: Deba

18:30ean Hazitik Ekodendan, Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 28: Idiazabal

19:00etan Udaletxeko Aretoan Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 30: Berrobi

19:00etan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 1: Bermeo

19:00etan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 2: Beasain

Azokan Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 6-10: Durango

Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 12: Segura

19:00etan Kultur Etxean Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena.

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus